




Txikizkako merkataritzako salmentak %3,6 hazi ziren

Txikizkako merkataritzako salmenta
Urte bakoitzeko iraila. Indizea



Iturria: INE.

INEk berriki argitaratutako datuen arabera, **EAEko txikizkako merkataritzaren salmentak %3,6 gehitu ziren irailean, aurreko urteko hil berarekin alderatuta.** Hori horrela izanda, azken hilabeteetan lortutako balio altuak berretsita geratu dira.

Enplegua handitu egin da txikizkako merkataritzan

Txikizkako merkataritzaren enplegua
Urte bakoitzeko iraila. Indizea




Iturria: INE.

Halaber, enpleguari dagokionez, txikizkako merkataritzaren estatistikak %1,4ko hazkundera hauteman zuen aurreko urteko irailaren aldean. Zehazki, aurreko hileko erregistroarekin batera (%1,6), 2023. urtearen erdialdetik izandako hazkunderik handiena da oraingoa.



Azalera handietako salmentak %1,0 gehitu dira

Azalera handietako salmentak
Urte bakoitzeko iraila. Indizea




Iturria: Eustat.

Irailean, azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentak %1,0 gehitu ziren, aurreko urteko hil beraren aldean. Hazkunde hori elikaduraz besteko produktuen sektorean kontzentratu zen (%4,7). Era berean, enplegua sortzen jarraitu zen (%0,7), baina erritmo apalagoan.

Estatuko KPIa %1,8koa izan zen urrian

Estatuko KPIa
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

INEk aurreratutako adierazlearen arabera, **urrian Estatuko KPI indizea %1,8an kokatu zen, aurreko hilean baino hiru hamarren gora-gora.** Bilakaera hori, batez ere, erregaien prezioen gorakadak eta, neurri txikiagoan, argindarraren eta gasaren prezioen igoerak eragin zuten. Era berean, azpiko inflazioa %2,4tik %2,5era igo zen.